

Gizatasunik gabeko gizakiak

Koldo SAGASTI

Ez dakit noiz utzi zion telebistak Gazako populazio zibilaren aurkako genozidioaren biktimen kopuruak emateari. Duela bizpahiru aste izango zen. 5.000 edo 6.000 hildakotik gora baten batek erabaki zuen ez zela lehenengo lerroburura ekartzeko moduko datu esanguratsua. Horregatik, nazioarteko prentsara jo behar izan dut jakiteko dagoeneko 20.000tik gorakoa dela azken bi hilabeteotan Israelgo erregimenak eraildako palestinarren zifra.

Hain gaude ohituta Palestinako herriarren etengabeko sarraskira non ohi-tzera ere iritsi garen. Normalizatu dugu, nolabait, heriotza dagokien patu ekidin ezina dela. Telebistako pantailetan iku-

si ditugu, noraezean, birrindutako etxeen hondakinen artean oinutsik, zama gainean eraman dezaketena besterik ez dutela, testuinguru politiko eta historikorik gabeko albisteen protagonista, eta apurka-apurka lehenengo orrietatik letra txikira zokoratu dituzte. Ekialde Hurbileko informazioan bereizitako kazetari *free-lance* bati entzun nion duela gutxi hedabideek jada ez dituztela erosten palestinarren giza eskubideen urraketek buruzko erreportajeak, albiste izateari utzi diotelako. Albiste batek, antza, ezohikotik zerbait behar du albiste izango bada.

Pasa den astean, Bakea eta Duintasuna erakundeak antolatutako mintegi batean, Lubnah Shomalik, errefuxiatu pa-

lestinarren eskubideak defendatzen dituen Badil erakundeko ordezkariak, azaldu zuen palestinarren oinazearen normalizazio hori deshumanizazio estrategia baten ondorioa dela. Alegia, historian zehar beste hamaika kolonizazio prozesutan gertatu den bezala, zantzaileak gizatasuna ukatzen dio zantzuari, gizaki izaera bera ere ez dio onartzen, horrela, iritzi publikoak haren kontrako balizko gehiegikeriak errazago irentsiko dituelakoan. Izan ere, 20.000tik gora hildako horiek geureak bezalako izen-abizenak, familiak, sentimenduak, ametsak eta proiektuak dituztela benetan jabetuko bagina, ezingo baikenuke gauez lorik egin. Eta erantzukizunak eskatzen has gintezke. •

«Bihar nik egin beharko dut ohea»

Amagoia MUJIKATELLERIA

Greba bezperan, enkargutan. «A zer nolako indarra daukaten feminista hauek!», bota du 70 urte inguruko emakumeak. Harrituta baino, haserre dago. «Tontakeria asko dago gaurko egunean. Greba egunean zer egingo dugu? Etxean garbiketa sakona, egun osoan denbora izango dugu eta».

«Bihar nik egin beharko dut ohea», bota du 70 urte inguruko gizonezkoak, «feministen kontu hori omen dago», burlaize nabariz.

Zenbat lan daukan egina matxismoak, nolako sustrai sakonak dituen, zein tinko dituen jarriak zutoinak. Ez alferrik, mendeak daramatza jendarte matxista

hau eraikitzen, harriz harri, pertsonaz pertsona, eraikuntza sozial eta erakunde publikoen konplizitate sendoarekin. Ez da erraza matxismoa errotik erauztea.

Emakume askok ez dute desorekarik ikusten haiek egiten duten zaintza lanaren eta gizonezkoek egiten dutenaren artean. Zaintzari apenas ematen dioten garrantzirik, gustatu ez arren egin beharreko lanetan sartzen dute. Komuna garbitzea bezala. Egin egin behar da eta kito. Eta nola egingo dute hori gizonezkoek? Gauza garrantzitsuagoak dituzte egiteko noski, pertsona garrantzitsuagoak diren neurrian. Eta zer esanik ez gizonezko askoren begiradaz. Ohea egin

beharko dutela, bazkaririk ez dutela izango, emakumeen matxinadak fundamenturik gabeko borrokak iruditzen zaizkie, etorri bezala joaten diren kasetatxoak. Ez dute ikusi nahi egunero-egunero ohea egiten duena, arropa garbitzen duena, jatekoa prestatzen duena, haien arazoak entzuten dituen, katarroa zaintzen diena dela benetan bizitzari eusteko duten soka. Hori gabe zurla eroriko lirateke zuzenean, ez lukete bizitza bizigarrikerik izango.

Eta bizitza bizigarriak izatea baino behar oinarritzakoagorik ez dago. Hori bai, denontzat bizitza bizigarriak aldarrikatu behar ditugu. Hainbeste min egiten al du oiheri horrek? •